

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko ekaina • 304. alea



IKER ALDAZABAL

**Gehiengo eta gutxiengoaren
jokuan oinarritzen da demokrazia**

MENDIZABAL OKINDEGIA 70 urte ogigintzan

“1940. urte ingurutik dihardugu ogigintzan”

Mendizabal-Iraola sendiak tradizio luzea du ogigintzan. Hirurogeita hamar urte baino gehiagoan dihardute lan horretan eta gaur egun ere indartsu eusten diote ofizioari.

Noiz hasi zineten ogia egiten?

1940. urte inguruan hasi ziren ogia egiten Patricio Iraola Barrutia eta Teresa Larrañaga Arizaga, gure aita eta amama. Aurretik, gerra garaian, gaseosa eta El Leon izeneko garagardoa ere egiten genuen.

Nondik datoz Otolanekua eta Mendizabal izenak?

Amama Teresaren aita Elosuko Otola-buru baseritik etorritakoa zen eta horregatik esan izan zaio Otolanekua. Mendizabal berriagoa da. Gure ama Asuncion Iraola Larrañaga Donostiako okindegi batera joan zen lanera dependienta moduan eta han ezagutu zuen Justo Roberto Mendizabal Jauregi okina. Mendizabal gure aitaren abizenetik dator.

“Lehen ogi gehiago jaten zen: etxe bakoitzean 6-7 ogi igual”

Orduan ogi gehiago egingo zen.

Bai. Gerra ostean jende asko etorri zen herrira eta ia 7.000 biztanle ere



Iraola ahizpak alaba eta loibarekin okindegian.

harrapatu genituen. Hiru-lau okindegi zeuden herrian eta baserri gehienetan egiten zuten ogia. Orduan ogi asko saltzen zen: kilokua, librakua, sopakua edo pistola. Etxe bakoitzera 6-8 ogi igual.

Zelakoazen okindegiko bizimodua?

Gogorra. Oso lan lotua zen, deskantsurik gabekoa. Labe zaharrek gau guztia pasatzen genuen ogia egiten, hurrengo eguneko ordu-batak arte. Dena eskuz. Asteazpi egunetan, zapatuetan bikoitza egiten hasi ginen arte, eta beranduago txandaka.

Emakumeok pisu handia izan duzue...

Bai. Guk, neskatilatxoak ginela, eskolatik irten eta ogiak partitzen genituen etxeetara eta tabernetara: Ekonomatora, Meltxorrenera... Jende askorekin genuen harremana eta herri osoa ezagutzen genuen. Gaur egun ere bai. Gainera, gurean beti izan gara berbetalariak.

“Ogia egurrezko labean egiten jarraitzen dugu”

Zertan aldatu da ogia egiteko modua?

Guk ogia egurrezko labean egiten jarraitzen dugu eta hori igartzen da. Goizeko 05:00etan hasten dira sua pizten eta goizeko 10:00ak arte jarduten dute ogia egiten, gero herriko eta Arrasateko okindegietan saltzeko. Denera 15 ogi mota egiten ditugu orain eta 8 pertsonak dihardugu lanean.

- Kalebarren, 10 Tel. 943 75 20 91
- Baltegieta, 6 Tel. 943 75 13 99



Txema egurrezko labean ogiak sartzen.

Batasunarekin herriak irabazten du

Zeinek pentsatuko luke zerbait adosteko PPK, EH Bilduk eta PSE-EEk batera bozkatuko zutela? Neuk uste nuen hori ez zela posible. Ba egin dute. Fracking-a zela edo hala eragozteko. "Fracking-aren aurkako gizarte mugimenduak pozez hartu du Legebiltzarreko ponentzian lortutako akordio zabala", baloratu dute. Neuk ere hala hartu dut, poz handiz, ez zaidalako fracking-ak duen itxura gustatzen. Baina batez ere, urtetan elkarren kontra jardun duten alderdi politiko horiek erakutsi dutelako gauza direla, kome-ni zaienean, elkarrekin ibiltzeko.

Fracking-a da, baina, Plazentzian gertatu dena. Hori ez zait gustatzen, batere. Ez zitzaidan gustatu, ezta ere, hauteskunde ostekoa: herrian boto gehien eskuratu-tako ordezkari-tza politikoari alkatetzakendu diote EAJren eta PSE-EEren batasunak. Baina, era berean, aitortu beharra daukat izugarri gustatu zaidala PSE-EEK, EH Bilduk eta EAJk Gasteizen egin dutena Maroto gobernurik kentzeko. Eta gauza bera Geroa Baik, Aranzadik, EH Bilduk eta Izquierda-Ezkerrak egin dutena Iruñeako alkatetzatik UPN kentzeko. Politikoki zilegi dira halakoak. Etikoak diren edo ez



Ubane Madera

"Nik nahiko nuke alderdi guztien artean osatutako Udal gobernu bat, batzordeen banaketa alderdi politiko guztien artean eginez. Horrela derrigortuta leudeke adostasunak lortzera."



jakiteko, berriz, erabaki hori hartu dutenen arrazoiak jakin beharko nituzke, eta ez dakizkit.

Beraz... nire buruarekin borroka egin ondoren, onartu behar dut udalerrit biterako zilegi denak, gainontzekoetarako ere hala izan beharko duela. Gainera, datu objektiboa da Soraluzeko EAJ eta PSE-EE batuta herritarren gehiengoak ordezkatzeko dutela.

Behin hori esanda, baina, uste sendoa daukat benetan herrigintza egin nahi duenak ahalegin berezia egin beharko zukeela herritarren ordezkarien arteko batasuna lortzeko. Erabatekoa. Nik nahiko nuke alderdi guztien artean osatutako Udal gobernu bat, batzordeen banaketa alderdi politiko guztien artean eginez. Horrela derrigortuta leudeke adostasunak lortzera. Eta gertuko batetik dioen moduan, adostasunik lortzen ez dutenetan, herriari galde diezaiotela. Orduan bai irabaziko zukeela herriak. Bestela, apurketa, fracking-a bada, herriari galduko du. Ez beste inork. Eta neu aspertuta nago beti elkarren kontra ibili behar horrekin. Zuek ez?

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Uribetxebarria **Maketazioa:** Oier Larreategi
Inprimategia: Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G201696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



Gutunak

Jose Fernando
Cid Perez **Zorionak**

Lehenik eta behin, lerroon bitartez zoriondu nahi ditut gobernatzeko elkarrekin ados jarri diren alderdiak; argi laga dutelako, politikan, boto gehien jaso duenak ez duela zertan gobernatu behar, gehiengo izateak ez duela gobernatzeko zilegitasunik ematen, alegia.

Bilduko boto-emaile ohi moduan, koalizioaren gobernatzeko era kritikatu nahi dut, Gipuzkoan jasan duten porrota adibide moduan jarrita. Foru aldundia eta udaletako gobernuak galdu izana euren gobernatzeko moduaren ondorioa izan da.

Ez da Espainiako banderakeskura emateko ordua, ezta negar egiteko momentua ere, autokritika egiteko baizik, eta pentsatzeko, hainbat udal galdu izanaren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen. Niretzat, eta nire moduan bozka erretiratu dutenentzat, Bilduko zinegotzien inesperientzia izan da koalizioa porrotera eramana duena. Horietako askok figurante papera bete dute; itzaletik beste batzuk gidatzen zituzten bitartean. Finean, alderdi ezkertiarrek askotan kritikaturako eredu inposatzaile eta faxista berbera erabili du Bilduk, askotan sentsibilitate gabe jokaturia eta PPTik hurbil dauden neurri zorrotzak hartuta, zaborraren legean edota hirigintza arloan esaterako. Horrek denak eragin du EAJk agintea bereganatzea.

Bigarrenkoz, EAJko eta PSE-EEko zinegotziak zoriondu nahi ditut, eta eskatu nahiko nieke euren esperentziaz baliatu daitezkeen herriaren alde lan egiteko. Gehiengoaren alde lan egin dezatela, baita arrazoi ezberdinengatik bozka ematera joan ez diren alde ere. Adostasunetik gobernatu dezatela, eta Bilduri gertatu zaiona irakaspen moduan har dezatela, berdin amaitu nahi ez badute.

Lan deialdia

Aisialdiko koordinatzailea

ESKAINTZEN DA:

- Egun erdiko lanaldia.
- 4 hilabeteko froga aldia, urtebeterako luzatzeko aukerarekin



PIL-PILEAN
EUSKARA ELKARTEA

Aniztasun egitasmoen kudeatzailea

ESKAINTZEN DA:

- Egun erdiko lanaldia.
- 4 hilabeteko froga aldia, luzatzeko aukerarekin.

Curriculumak aurkezteko epea:

Uztailak 6, astelehena.

koordinazioa@pilpilean.com edo Pil-pilean Euskara

Elkarteko bulegoan.

Informazio gehiago:

www.plaentxia.eus edo 943751304 (9:00-13:00)

Publizitate eta ikusentzunezkoen arduraduna

ESKAINTZEN DA:

- Egunean 2 orduko lanaldia.
- 4 hilabeteko froga aldia, luzatzeko aukerarekin.

Bittartetik



Gotzon
Elizburu

Nork egin behar du zer?

Erabakitzeko eskubidea potentzial ikaragarria duen terminoa da. XXI. mende hasiera honetan gure jendarteek dituzten arazo sozial askori erantzuna eman diezaike, kultura politiko berri erabat demokratikotik abiatuta. Erroko auzi bati heltzen baitio. Nork erabakitzen du zer?

Milaka herritarrek parte hartu zuten domekan Gure Esku Dagoren hiriburu-erretiraketaren ekitaldian. Hala ere, irudiek garrantzia handia dute gure jendartearen. Estadio beteak bilatzen ziren indarra berretsi eta erabakitze faseari indarrez ekiteko. Aho zapora gozoa izan lezake norbaitek.

Ez du lan erraza izan GEDK. lazkoaren aldean, giro hotza sumatu da. Eskoziako galdeketa aspaldi pasata eta ezezkoak irabazita batetik. Horrek Europar Batasuna erabakitzeko eskubidearen aurrean posizionatu araztetik libratu zuen. Kataluniako prozesua ere azaroz geroztik hotz nahiz eta berriz ere berotzeari ekingo dion. Eta hauteskunde biharamuna. Herritarrok iaz izan genuen benetan galdu ezinezko egunaren sentsazio hori ere ez da egon aurtengoan beharbada.

Baina GEDK askotan esan duenez, erabakitzeko eskubidea garrantzitsuegia da alderdien eskuetan uzteko. Bi ikasgai. Baga Kataluniatik: prozesua herri mugimenduen gidaritzatik alderdienera pasatzen denean hoztu egiten da. Biga Eskoziatik: prozesua abiatu eta konfrontazio politikoaren bidez polarizazioa behartzean hazten da subjektua. Gure esku dago.

Elizpe
Hertz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikusizina
- Inplanteak

DOMININGO BERRIKUNTZAK
FINANTZAKETA ZURI NERABIA
KOPROBANTZORIK GABEKO AURKIKONTZIA

MUTUAILIA, PADI (Inaurren arretarako hertz programak)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu, 3 beheko. Sorabuzte

IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

“Pakistanen ere ingeles irakasleak ginen”

Saadia Nasir eta Raja Nasir
Ingeleseko mintzapraktika-taldean arduradunak



Saadia Nasir eta Raja Nasir.

Nasir (48 urte) eta Saadia (40 urte) senar-emazteak Pakistango Jhelum herrikoak dira jatorriz. Urte eta erdi inguru da herrian bizi direla, Latif eta Ghazi semeekin eta amonarekin batera. Azken hilabeteotan doako ingelesezko mintzapraktika taldeak dinamizatzen dihardute eta dagoeneko lau talde osatu dituzte 15 parte-hartzaile ingururekin. Raja Nasirrek gure galderei erantzun die.

Zela hasi zineten mintzapraktika-taldeekin?

Heldu ginenean ez genekien espainieraz eta jende guztiarekin ingelesez egiten genuen. Alkarrekin batzartean parte hartu ostean, Unai Larreategik ezan zidan bazegoela jende asko ingelesa praktikatu nahi zuena eta ea animatuko ginen mintzapraktika taldea sortzera. Baietz esan genion.

“Pakistandar komunitatearekiko zubilana ere egin nahi genuke”

Badirudi ondo doala. Dagoeneko lau talde osatu dira...

Bai. Oso esperientzia ona eta aberasgarria ari da izaten bi aldeendako. Hemen go herritarrek ingelesa praktikatzeko dute eta guk espainiera, eta euskara ere bai, tarteka. Gainera, mota askotako herritarrak ezagutzeko aukera eman digu: jubilatuenak, langileak, ikasleak...

Ingelesaz gain, zenbat hizkuntza dakizkizu?

Urdua, Irango persiera, espainiera eta euskara pixkat. Pakistanen ingelesa ez da ofiziala baina asko erabiltzen da. Guk biok ingeles irakasle moduan jardun dugu han. Hori dela-eta, gure asmoa da epe ertainean ingelesa ikasteko akademia bat zabaltzea herrian, ume, ikasle eta profesionalendako. Ingeles nazioartean zabalduen dagoen hizkuntza da eta balio du jende askorekin elkar ulertzeko, horregatik ikasi nahi du jendeak baina lotsa ematen dio publikoan hitz egiteak.

Euskaraz ikasten ere badiharduzue.

Bai. Orain euskaraz ikasten dihardugu, berrogei orduko ikastaro batean eman dugu izena eta asmoa daukagu irailetik aurrera euskaltegian ikasten jarraitzeko. Hemen bizitzeko euskara ikastea garrantzitsua da guretzat. Plazan euskaraz egiten da eta jendearekin harremana izan nahi baduzu ezinbestekoa da euskara. Semei euren ikasketetan laguntzeko ere behar dugu.

“Talibanek mehatxu egin ziguten eta atzerriratzea erabaki genuen”

Hemen bizitzen jarraitzeko asmoa duzue?

Bai. Gure seme-alabek hobeto berba egiten dute euskaraz edo gaztelaz urdue-

raz baino, eta Pakistanera bueltatzeko gero, tokiz kanpo egongo liriteke. Gainera, ez dugu uste epe ertainean hango egoera aldatuko denik eta hemen bizitzea erabaki dugu. Jendea oso atsegina da eta gertuko; geure izenetik ezagutzen gaituzte, umeak lasai ibil daitezke, badakitelako zerbait gertatuz gero laguntza jasoko dutela. Guk hemen aterata nahi genuke bizimodua aurrera: hemengo hizkuntzak ikasi, geure lanetik bizi eta gizarte honi ahalik eta ekarpenik onena egin. Komunitate pakistandarrarekiko zubilana ere egin nahi genuke.

“Hemen bizitzeko euskara ikastea garrantzitsua da guretzat”

Zergatik hartu zenuten Pakistan lagartzeko erabakia?

Egoera ekonomikoa oso txarra da: krisia, gerra... ez da toki segurua; horregatik, ateratzen da jendea atzerrira. Guk bizimodu eroso genuen han, lan onak genituen... baina talibanak dirua eskatzen hasi zitzaizkigun baita Ameriketako Estatu Batuen enbaxadan sartzeko laguntza ere. Mehatxu egin zidaten andrea eta seme-alabak bahituko zituztela eta hilko nindutela. Beldurrez bizi ginen eta atzerrira joatea erabaki genuen. Batzelonara joan ginen lehenengo eta gero Sorluzera, hemen ezagun bat guretzat.



Lan deialdiak Pil-pileanen



Auzoko egitasmoa Eskoriatzan.

Pil-pilean euskara elkarteak lan-deialdia kaleratu du hiru lanpostu betetzeko. Arrate Gisasola koordinatzaileak azaldu dizkigu lanpostu deialdi bakoitza egiteko izan diren arrazoiak: "Aisialdiko arduradunaren kasuan, orain arte horretan jardun duen lankideak, Maite Quintani-

llak, hartuko duen eszedentzia kubritzeko izango da, Kukumixo eta Gaztetxokoaren kudeaketaz arduratzeko, batez ere.

Aniztasunaren arduradunak, aldiz, irailetik abendura bitartean herriko errealitate eleanitza ezagutu eta euskaratik urrun bizi direnak euskarara erakartzeko eta Auzoko hizkuntza-egitasmo berritzailea garatzeko zeregina izango du. Azkenik, publizitate eta ikusentzunezkoen arduradunak komunikabide sailean sortutako lan-karga kubritzeko eta ikusentzunezkoen ildo berria abiatzeko ardura izango du, Leire Iturbe kazetaria baja izango da-eta.

Curriculumak aurkezteko epea zabalik
Curriculumak aurkezteko epea uztailak 6ra artekoa izango da. Informazio gehiago: www.plaentxia.eus -en komunitateko blogean.

10 Herritar euskara-ikastaro trinkoan

Hamar herritarrek eman dute izena gutxieneko euskara eskakizuna eskuratzeko Udalak antolatu duen ikastaro trinkoan. Herrian jaiotako zein beste herrialde batzuetatik (marokoatik, pakistandik bangladestik) etorritako soraluzetarrek eman dute izena. Hirurogei orduko ikastaroa da eta asteko bost egunetan 10:00etatik 12:00etara bitartean batzen dira AEKn. Ikastaro horren bitartez gutxieneko euskara maila lortzeko itxaropena dute ikasleek. "Giro onean eta gogotsu" dihardute, gainera.



Gotzonen auzia epai zain

Auzitegi Nazionalak emango duen epaiaren zain gelditu dira Gotzon Elizburu eta beste auzipetuak. Ekainaren 16an egindako azken saioan Gazte Danbadako bideoak ikusi zituzten eta akusazioak -fiskaltzak eta AVTk- eta defentsak euren alegazioak aurkeztu zituzten. Akusazioak 18 hilabetetik bi urtera arteko gartzela-zigorra eskatu du Gotzonenendako. Defentsak, aldiz, absoluzioa eskatu du, argudiatuz egozten zaizkion berbazko delituak ez direla delitu.



FotoNotizia



Soraluzetarrak erabakitzeko eskubidearen alde

Berrehun herritar baino gehiago joan ziren zapatuan Gure esku dagok Donostian antolatu zuen jaialdira. Soraluzeko Gure esku dago oso gustora azaldu da lortutako kopuruarekin baina azken hilabeteotan "belaunaldi eta sektore ezberdinetako herritarren artean lortutako elkarlana" azpimarratu nahi izan dute, erabakitze eskubidearen aldeko ekimenean jardun duten herritar guztien laguntza eskertuz. Argazki bilduma eta bideoak Plaentxia.eus-en daude ikusgai.



Sabin Soto del Realen espetxeratu dute

Sabin Mendizabal Madrilgo Soto del Realen espetxeratu dute epailearen aginduz. Bertan bete beharko du Auzitegi Nazionalak ezarritako lau urte eta erdiko zigorra, ihes egin aurretik Alderdi Popularraren egoitzari eraso egitearren. Epaileak bertan behera laga du egozten zioten bigarren eraso-delitua. Gaur 20:30etik aurrera afari begetarianoak eskainiko dituzte gaztetxean, eta bildutako dirua Sabin bisitatzeko gastuei aurre egiteko erabiliko da.



Sentsoreak instalatuta Erregetxean

Erregetxeko aparkaleku-plazen egoera zein den jakiteko sentsoreak instalatuta, Udalak jakinarazi du datozen egunotan instalatuko direla plazak libre dauden ala ez, eta zenbat plaza libre dauden jakiteko sentsoreak. Bi-hiru asteko epean, Alkarrekin mugikorreko aplikazioan ere eskuragarri egongo ei da informazio hori.



Arranora joateko deia

Auzitegi Gorenaren epaia jakin ostean, mobilizazio jendetsua egin zen herrian, epaia salatu eta Arranoa ez ixteko eskatuz. Libre plataformak dei egin die herritarrei Arranora hurreratu daitezen kafea hartzera, poteatzera, jatorduak egitera, edo antolatuko diren kultur emanaldietan parte hartzera, modu horretan Arranoa ixtearekiko desadostasuna adierazteko.



Hainbat herritarrek eskatu dute Arranoa ez ixteko.

Barixaku honetan bertan #ArranoLIBRE eguna antolatu dute eta hainbat ekimen izango dira:

18:00etan Irati Trebiño ipuin kontalaria

19:00etan The Oso Basatis

20:00etan Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Bi langile eta 120 bazkide

Arrano elkarte 1986an inauguratu zuten elkarte gastronomiko eta kultural moduan; gaur egun, 100 bazkide dituen elkarte da. Arrano taberna, berriz, bi lagunek kudeatzen dute baina beste pertsona askok egin dute lan. Mugimendu politikoaren egoitza ere baden arren, elkartearen eta tabernaren kudeaketa beti "modu autonomoan" kudeatu izan direla adierazi digute elkarteko arduradunek.

Epaia eta erreakzioak

Espainiako Auzitegi Gorenak ehun elkarte eta enpresa baino gehiago ixteko eta konfiskatzeko agindua eman du, tartean Soraluzekoa. Elkarteoi HB finantzatu izana egotzi die. Epaia lokal guztiak Espainiako estatuaren jabetza izatera pasa dira; modu horretan, etorkizunean lokalak subasta bitartez saltzeko aukera izango luke estatuak. Soraluzeko eskubide zibil eta politikoaren aldeko Libre plataformak eta Sortuk adierazi dute mugimendu politiko baten egoitza politikoak ixtea "erabaki larria" dela, "demokraziarekin eta euskal herritarrek desio duten elkarriketa eta konponbidearekin bat ez datorrena".

JUAN MARI
XXXIINDEGIA
943 75 24 40
MERKATU PLAZA
ESKERRIK EZKO PLAZA/BIETZARRI
GOGAN ULANDAKO KONFIDENTZAGETIKI

MGS
Seguros
Loli Nieves García
Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es

LEGEINTZALDI BERRIA

Izendapen polemikoa

EAJren eta PSE-EEren arteko akordioari esker Iker Aldazabal Basauri herriko alkate izendatu izanak zeresan handia eman du herrian. Indar politikoek aste honetan hasi dituzte balizko akordioa bilatzeko elkarrizketak.

Herenegun hiru indar politikoetako ordezkariak -zerrendaburuak- elkarrekin batu ziren lehen aldiz, udal-gobernu berriaren osaketaz berba egiteko.

Uztailaren 13a arteko epea izango dute udal gobernua osatzeko

EAJ eta PSE-EEK martitzenean egin zuten balizko gobernu akordioaren inguruan berba egiteko lehen bilera eta, hurrengo egunean, eguaztenean, EH Bildurekin batu ziren. Datorren eguaztenean, elkarrekin berbetan jarraitzeko gelditu direla da jakinarazi diguten informazio bakarra. Bilera horietan erabakiko dute zeinek osatuko duen datozen lau urteotan udalaren jarduna gidatuko duen gobernu. Uztailaren 13ra arteko epea izango dute horretarako. Udal-gobernu osatu aurretik alkatetza lortu duen alderdiaren zinegotziek izango dute udalaren jarduna bideratzeko ardura.

EAJ: "Aurkezteko erabakia alderdiaren aginduz hartu genuen"

Erabakia "alderdiaren aginduz" hartu duela adierazi du EAJk

EAJk ekainaren 13ko batzarrean alkatetzarako hautagaitza aurkezteko erabakia "alderdiak aginduta" hartu zutela adierazi du, "EH Bilduk batzarraren aurretik eta batzarrean bertan zabalduetako informazioa gezurtatuta". Udal-gobernuaren osaketari dagokionez EH Bilduk parte hartzeko atek zabalik daudela jakinarazi du.

PSE-EEko ordezkariak, euren aldetik, ez dute adierazpenik egin nahi izan.

"Bazterketarik gabeko elkarlanaren alde" jarraituko duela esan du EH Bilduk

EH Bilduk egoeraren inguruan egiten duen irakurketaren berri eman digu. "Le-



Ekainaren 13ko batzarra.

henik eta behin, gogorazi nahi dugu inoiz ez dugula EAJren eta PSE-EEren arteko akordioa egiteko eskubidea zailtzan jarri; bai, ordea, egokitasuna. Lehen indar gisa, elkarrizketak hasi genituen herrian ordezkariak lortu zuten alderdiekin, eta EAJ zein PSE-EEekin egindako bileretan argi esan genien ez genuela nahi bietako batekin paktu bat egitea bestea kanpoan uzteko. Are gehiago, aukera eskaini genien, hala nahi izanez gero, alderdi guztien arteko gobernu osatzeko. Ez genuen erantzunik jaso beraien aldetik. Horren ordez, EAJ eta PSEk nahiago izan dute elkarlaneko gobernu eskaintzen zien lehen indarra baztertzeko.

EH Bildu: "Guk guztien arteko gobernu osatzeko aukera eskaini genienean ez genuen erantzunik jaso"

"Gertatutakoa mingarria izanagatik ere, EHBildutik prestutasuna daukagu zaba-

lik dauden aukerak aztertzeko eta herriaren onurarako izango den elkarlanerako akordio bat lortzeko; inor inoren gainetik kokatu gabe".

EH Bildu: "Ez dakigu inon lortu den 'egoera berbideratzea' gobernuaren denen parte hartzea bideratzeko aukera eskaini duen indar bozkatuenari alkatetza kendu ondoren"

"Ez da batere erraza izango. Ez dakigu inon lortu den 'egoera berbideratzea' gobernuaren denen parte hartzea bideratzeko aukera eskaini duen indar bozkatuenari alkatetza kendu ondoren. Hala ere, guk ahalegina egingo dugu. Hori bai, gobernuan egon edo oposizioan egon, Soraluze biziberritzen jarraitzeko borondate osoarekin jarraituko dugu lanean, inor baztertu barik".



“Gehiengo eta gutxiengoaren jokuan oinarritzen da demokrazia”

Iker Aldazabal Alkatea

Zer moduz joan dira alkate moduan egin dituzun hasierako egunok?

Aterrizatzen nabil. Dena da berria. Nik eza-gutzen dut udaletxeko funtzionamendua, baina alkatearen aulkitik egin beharreko kudeaketa desberdina da.

Zein izan da hartu duzun lehengo erabakia?

Astlehenean 07:30ean etorri nintzen lanera eta hartu dudana lehenengo erabakia brigadako langile batzuen jarduna luzatzea izan da. Brigadak lan karga izugarria dauka eta une honetan bajak eta oporrak direla-eta, lan-ahalmen txikiagia zuen.

Alkate izendatu zintuen batzarra normaltasunez garatu zen, baina tentsioa nabarmena izan zen.

Tentsio handiko plenoa izan zen, bai. Batzarra baino egun bat lehenago EH Bilduk whatsapp bat zabaldu zuen erabakia hartuta zegoela esanez eta jendea batzarre-ra joan zedin animatuz. EH Bilduk gezur horretan oinarrituta jardun zuen batzar osoan ere. Presioa zabaltzeko modu horiek onartezinak dira.

Azken momentura arte EAJk ez zuen argitu hautagaitza aurkeztuko zuen ala ez. Noiz eta zela hartu zenuten erabakia?

Barixaku arratsaldera arte ez genuen erabakiaren berri jakin. PSE-EErekin lortutako akordioaren berri eman eta hautagaitza

aurkeztu behar genuela jakinarazi ziguten. Guk izan genezakeen gure iritzia baina erabaki hori goitik jasotakoa izan da.

“Gu ez gatoz ezer hankaz gora jartzera”

Erabakia herrian hartu behar izan bazenute bestelakoa izango zen?

Guk beti egin izan dugun moduan alderdiak agindu diguna bete dugu. Orain lau urte boto zuria emateko agindua jaso genuen eta oraingoan aurkeztetako. Biak bete ditugu.

EH Bilduko ordezkariak herritarrei iruzur egin izana egotzi dizuete.

Zer da demokrazia? Nik uste dut demokrazia herri-ordezkariekin gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko orekan oinarritzen dela. Hori esanda, galdetuko nioke EH Bilduri ea Bakiokoa iruzurra izan den, edo Iruñakoa edo Gasteizkoa. Ezin dena da norberari ondo datorkionean iruzurra izan dela esan eta ondo datorkionean aldatetaren alde izan dela aldarrikatu. Koherentziari eutsi behar zaio.

Herritarren artean denetariko iritziak izan dira. Zein iritzi jaso duzue?

Bai, bai, denetarikoak. Batzarrean faxistak garelako entzuetatik, besarkadak, muxuak eta zorionak jasotzera. Denetarik izan da.

Batzarrean sortutako ezinegonaz kontziente zinela eta “egoerari buelta emateko” intentzioa adierazi zenuen. Zer esan nahi du horrek praktikan?

“Guk alderdiak agindu ziguna bete dugu, beti egin dugun moduan”

Argi lagatzea nahi dut gure filosofia Sorraluze elkarrekin eraikitzearena dela. Gure asmoa da alderdi eta herritar guztiekin trukitzea iritziak eta lana. Oso kontzientea naiz zein egoeratan hartu dudana alkatetza eta jakitun naiz horrek sortu dituen tentsioez, baita gure talde barruan ere.

Elkarrizketak PSE-EErekin abiatu dituzue.

Euren babesa eman digute eta logikoa den moduan lehenengo bilera PSE-EErekin egin dugu. Oraindik ez dugu ezer adostu.

EH Bilduk udal-gobernuan parte hartzeko aukerarik ikusten duzue?

EAJren aldetik EH Bildu gobernuan egoteko aukera zabalik dago. EH Bilduk baietz esango balu, nik ikusiko nuke badagoela borondatea Sorraluzeren oinarria elkarrekin eraikitzeko. Udal-gobernuaren osaketaren inguruko erabakia herrian hartuko dugu.

Aurreko udal-gobernuak martxan jarritako proiektu nagusiekiko adostasuna adierazi izan duzue. Aurreikusten duzue aldatetaren bat?

Orain arte ondo dagoenarekin jarraituko dugu eta hobetu daitekeena hobetuko dugu. Gu ez gatoz ezer hankaz gora jartzera. Gainera, egoera ez da hori.

“EH Bildu gobernuan sartzeko aukera zabalik dago”

Urtea amaitu aurretik zein egitasmo abiatzea gustatuko litzaizuke?

Lehenengo seihilekoan lau urteko kudeaketa-plan bat adostu behar genuke, Alkarrekin prozesuan adosturiko ildo nagusiak txertatuz. Hortik abiatu behar genuke gure jarduna. Hori egiten ez badugu, egunerokotasunak jango gaitu eta zailagoa izango da norabide batean lan egitea.

Ados jartzea gakoa izango da Alkarrekin jarraitzeko?

Alkarrekin aurrera egiteko ados jartzea gakoa den moduan, hirigintza planean ere beharrezkoa da, edo are beharrezkoagoa. Guk Alkarrekin bultzatuko dugu, hasieratik bultzatu dugun moduan.

EAJ eta PSE-EEren azken orduko akordioak ezusteko egoera sortu du udaletxean. Alkatea izendatuta dagoen arren gobernu batzordea osatzeko elkarrizketak oraintxe hasi dira.

Zer iritzi duzu udaletxean sortu den egoera politikoaz?



Iñaki Larrañaga

Joku politiko horrelakoxea da. Akordioak egin daitezke eta egin dute baina uste dut herritarren gehiengoak ez zuela horrelako aldaketarik eskatzen, aurreko lau urteetan lan ona egin dutelako. Nahi nuke etorkizunean ere herritarren parte hartzea bultzatzen jarraitzea.



Miriam Sanchez

Nik uste dut hautagai bien artean konpondu behar liratekeela eta herriaren alde elkarrekin lan egin. Biak dira ezagunak eta biak ditut lagun, Unai eta Iker. Iruditzen zait bata kezka besteak lan ona egin dezaketela.



Oihher Aranzeta

Iruditzen zait Soraluze Alkarrekin filosofiarren kontrako erabakia hartu dutela indar politiko bat baztertua, hauteskundeetan babesik handiena lortu duen indarra. Elkarrekin jarri dira eta nahi nuke adostasun batera hel daitezen.



Rosa Morales

Legezkoa da baina ez zait erabaki zuzena iruditu. Koalizioa egiteko asmoa bazuten hauteskundeetan aurretik esan behar zuten eta ez gero. Nik EAJ bozkatuko banu EAJ bozkatu dut eta ez PSErekin bat egitea beste batzuk kentzeko. Zaila ikusten dut adostasun batera iristea.

Lehiaketa

Galdera
Zein izan zen
EAJren lehen
alkatea?

Saria:
Itxoste mermeladak



Aurreko aleko erantzuna

361 isun jarri zituen iaz udaltzaingoak

Irabazlea
Mireia Lamariano



Oharra: lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-posta bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

AURREZTU ENERGIA



Berotu ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

TXURITXU GOZOTEGIA


Tel. 943 75 24 43

Pastel eta gosari goxuenak dastatzeko lekurik onena

Etxera banaketak egiten dira



Elkarrizketa



Irene Perez.

“Astean bost entrenamendu egiten ditugu, hiru ordukoak”

Irene Perez Arribasek jubencil mailako gimnasia erritmikoko Euskadiko txapelketa irabazi du hemezortzi urterekin.

Noiztik diharduzu gimnasia erritmikoan?

2008an, Malagan, joko olinpikoak ikusteko aukera izan nuen eta orduan piztu zitzaidan kirol hau praktikatzeko gogo. Hamar urte nituela eman nuen izena herriko taldean. Orain, 18 urterekin, Eibarren aritzen naiz, Ipuruia taldearekin.

Zelakoak da zuen prestakuntza?

Astean bost entrenamendu egiten ditugu, hiru ordukoak. Fisikoki prestatu, flexibilitateari lotutako ariketak egin eta hainbat aparaturekin entrenatu: uztaietara, zintekin... Dantza zailak prestatzen ahalegintzen gara.

Asko zaindu beharko duzue...

Guk ez dugu dietarik jarraitu beharrik, azkenean, entrenatzen ditugun ordu guztiekin jaten dugun guztia erretzen dugulako.

Datorren urtean maila bat gorago lehiatuko duzu.

Euskadiko onenen artean jardungo naiz eta badakit prestaketak gogorrak izango direla. Aurten lortutakoa entrenatzaileari esker izan da; nahiz eta askotan oihuka aritu, beti nire mailarik onena bilatzen jardun du.

Zela irudikatzen duzu etorkizuna?

Federetzea gustatuko litzaidake eta Espainiako txapelketaren batean lehiatzea.

Hamalau talde futbito-txapelketan

Liagaxka amaitzeko jardunaldi bat falta deanean, hamalau talde ari dira kiroldegiak antolatutako futbito txapelketa jokatzeko, zazpi taldeko bi multzotan banatuta. Momentuz, Fronton Team eta Euskolabel dira sailkapenaren buruan doazenak. Uztailaren 4an, bi multzoetako lehen lau sailkatuek final-laurdenak jokatuko dituzte, uztailaren 11n final-erdiak eta finala uztailaren 18an, jaia baino astebete lehenago.



Fronton Team taldea.

Herriko kirolarien garaipenak

Herriko kirolariek hainbat garaipen lortu dituzte azken asteotan. Sorako erregional taldeak Gipuzkoako Kopa ekarri zuen herrira, Atxotegi eta Aldape pelotariak Debarroko txapela jantzi zuten, Ixa Rodriguez boxeolariak Espainiako txapela eskuratu du eta Irene Perez gimnasta Euskadiko txapelketa irabazi du. Waterpoloan, berriz, Julen Soralezek eta Ignacio Aranek Euskadi ordezkatzeko dute Espainiako txapelketan.



Kontulan 

aholkularitza

Errenta aitortpenak • Zerbitzu juridikoak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen kontzezio/diskontzeioak • Kontabilitatea • etab...

Santa Ana 11 - 1. ezk. 20590 Sorabea - Tel. 943 75 12 82 / Fax 943 75 01 82

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

 arrunta
dekoraziokoa
industrialia

Tel. 943 75 13 24
Mug. 652 77 70 30

Alaitz Urkia da musika-eskolako zuzendari berria



Alaitz Urkia, musika-eskolako zuzendaria.

Irailetik aurrera eta datozen lau urteetan Alaitz Urkia Rodriguez (Hondarribia, 1981) izango da musika-eskolako zuzendaria. Urkiak Musikeneko pedagogia ikasketak bukatu ditu, pianoko ikasketak egin zituen Irungo kontserbatorioan, Debako Aitzuri abesbatzako zuzendaria da eta KUP taldean ere abesten du. Soraluzen, musika-tailerra eta pianoa irakasten ditu eta koroa ere zuzentzen du. Urkiak gogoz hartu du zuzendaritzako ardura: "erronka berria da niretzat baina ilusio handiz hartzen dut kargua, sinesten dudalako posible dela gure eskola, inguruko eskola txikien artean, erreferente bihurtzea".

Kultura kronika argazkitan



Angel Mario Fernandez (La Plata, 1964), idazlea

"Brasilera erbesterratu behar izan nuen bi urtez"

Soraluzen bizi den Angel Mario Fernandez argentinarrak "Hijos del corralito" (Tandaia, 2015) nobela aurkeztu du. Ehunetik gora kontakizun idatzi ditu guztira, hogeni nobela inguru, hamar antzezlan eta kronika ugari.

Zerk bultzatu zintuen idazle izatera?

10 urte nituen. Agian, hanketan topatu zidaten gaixotasun goiztiar batek bultzatu ninduen liburuetan murgiltzera, kirola alde batera lagata. Gurasoek, pilotak erosi beharrean liburuak erosten zizkidaten.

Zelakoa izan ziren zure hasiera literaturan?

Argitaratzeari dagokionez, zailak. Sor-kuntzari begira berriz, gozoak. Nire lehen idatziak oso kritikoak ziren diktadura militarrekin eta, ordainetan, Brasilera erbesterratu behar izan nuen bi urtez.

Zerk inspiratuta sortzen duzu?

Nire kontakizunetan errealitatearen gordintasuna islatzea gustatzen zait. Zientzia fikzioa ere landu izan dut, bizi-tza berriak topatzea nire obsesioetako bat da...

Zer egin behar da liburu bat argitaratzeko?

Pertseberantzia, pertseberantzia eta pertseberantzia.

Zein gomendio emango zenioke idazle izan nahi duenari?

Idazle izatea ez da liburuak argitaratzearen sinonimo. Idazleak egunero idazten du, behar bati erantzuten dio. Nire gomendioa da asko irakur dezatela, Bernardo Atxaga, Jorge Luis Borges edota Julio Cortazar idazleen lanak gomendatuko nizkieke.


Zorion agurrak



Kattalin Sodupe
Ekainan 8xan urtebete!
Zorionak politiori eta muxu erraldoiak, familia osuan partez!



Enara Garitano
Ekainan 9xan urtiak bete dituzulako, muxu erraldoi bat, etxeko danon partetik!



Zaloa Garcia Rodriguez
Ekainan 24an 7 urte!
Zorionak eta jarraitu oin arte moduko sorgintxua izaten. Asko maitte zaittugu, familiakuak.



Mireia Lamariano Nieves
Ekainaren 21ean 24 urte
Zorionak eta segi deizula beti halakoxe umore onarekin. Etxekoen partez



Koldo Arantzeta
Zorionak zure 6. Urtebetetzeari!
Beti bezain alai jarraitu, etxekuen partez.

Taiotakoak eta hildakoak



Maria Begoña Irigoras Gallastegi
Manuel Galarraga Alday

Oharrak



1965. urteko kinto-bazkaria

Uztailaren 4an, Txurruka jatetxean
Ordainketa 50 € (izen eta guzti): Kutxa 2095 5062 90 9115075696
Ekainaren 30a baino lehen ordaindu behar da.
13:00etan Txoko inguruan elkartuko gara.
14:00etan taldeko argazkia Plaza berrian.

Soraluzetarren bazkaria Madrilen

Madrilen bizi diren soraluzetarrek bazkaria egingo dute bertako "Soraluze" jatetxean, irailaren 19an. Interesatuak 916 392874 edo 658 874670 telefonoetan eman dezakete izena.



ESTETIKA
SOLARIUM
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89

NOBEDADEA
Semi permanent manikura
2-3 astean irauten duena
Brillo gehiago, kolore gehiago...
20€





ARMENDIA
JATETXEA
Ezozí Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02
SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Eguerditan
rabak, txanplak, olagarroak,
patata minak eta kroketak
(ebxera eramateko ere bai)

Gauetan
ogitartekoak
eta plater
kombinatuak



EDURTZA
kafetegia
Santa Ana, 12
TEL 943 75 13 83



Iturria: Udal-artxiboa.

Ikurrina jarri zenekoa

1977ko urtarrilaren 19ko Udalbatzarraren argazkia da hau. Alberto Lersundi alkate zela, ikurrina jartzea onartu zen eta batzarra amaitu ostean, zubiaren aurrean jende mordoxka zain zegoela, ikurrina jarri zuten udaletxeko balkoian. Garai hartan Francoren garaian ezarritako udalbatzarra zegoen indarrean eta oraindik ez zen hauteskunderik egiten.

1979an egin ziren gerra osteko lehen udal-hauteskundeak eta zinegotzi kopurua honakoa izan zen: EAJK 6, SIEK 5 eta PSOEK 2. Urte hartan EAJko Jesus Akizu izendatu zuten alkate.

Argazkian ageri dira, ezkerretik hasita: Jose Manuel Perez (idazkaria), Luis Arrillaga (erdi ezkutuan), Miguel Angel Oregi, Gonzalo Akizu, Alberto Lersundi (alkatea), Luis Urizar, Juan María Borinaga, Félix Aizpiri eta Pedro Cacho.

Zuzenketa: Maiatzeko alean gure herria Plasenciarekin ahaidetu zela argitaratu genuen baina udal ordezkariak elkarri egindako bisita izan zen, ez ahaidetzea.

 Kiru Muntalak 943 76 99 85	Pol. Amilaga 5 BERGARA kirumuntalak@yahoo.es www.kmdesign.es Tel. 943 76 99 85	<input type="checkbox"/> Diseinu eta Fabrikazio lanak	Sukaldeak Horma-amairuak Logelak Zoruak Ateak...
		<input type="checkbox"/> Arotzeria	lanak oro har <input type="checkbox"/> Instalazioak

*baso garbiketarak
eta entresakak*
zortzi laguneko taldea
zure zerbitzura


 mug. 635 71 34 08



UDA HONETAN ZATOZ **ZEN** EGITEIRA

eta nuke, baleki, zenekien...

*zitzaion
dezakezu
litzaidake*

*genekien
zetorren
naiteke*

AURKI EZAZU
ZURE BARNEKO OREKA,
EUSKARAREN BIDEZ

*eman izena
Gipuzkoako euskaltegietan*

SAN ANDRESKO JAIXAK 2015

Soraluzen

Barikuan makala tentetu eta txorixo-probatzia elkartean

GAZTIEN EGUNA

UZTAILAK 11, ZAPATUA

Eguerdiko 13.00etan jaien hasiera kanpai bueltarekin

21:00etan **HERRI AFARIA***, **Laja** eta **Lutxurdiok** alaituta.

23:00etan Erromeria **EGAN** taldearekin
Atsedendian txokolate-jana.



JAI EGUNA

UZTAILAK 12, DOMEKA

10:00etan Iñaki Ruizen Omenezko IV. Mendi Lasterketa

12:30ean Meza

13:00etan Pelota partiduak

UNAI eta ENAITZ trikitilariak eta
AITOR MENDILUZE eta **AGIN LAUBURU** bertsolariak

14:30etan Bertso-bazkaria elkartean

18:00ean Bergarako zezentxoak eta poniak

19:00etan Bola-txapelketa

21:30ean Afariak elkartean



AUZOKUEN EGUNA

UZTAILAK 13, ASTELEHENA

12:30ean Meza

13:00etan Umeendako jolasak

13:30ean Emakumeen bola-txapelketa

14:30ean Auzotarren bazkaria frontoian

Bazkalostean **LIZASO** eta **EGAÑA** bertsolarien saioa eta **LAJA**
eta **LUTXURDIO**rekin erromeria


Afaria eta **LAJA** eta **LUTXURDIO**k alaitutako erromeria.

* **HERRI AFARIRAKO TXARTELAK** egunean bertan izango dira San Andresko elkartean. Afariko menua: Entsalada, Bakailau tortila, Saiheskia, Postrea, Kafea, Kopa. Prezioa: 15 euro.

* **ASTELEHENEKO BAZKARIAN** auzotarra izan barik ere parte hartu liteke. Izena emateko deitu 699193203 telefonora.



Laguntzailea: Antolatzailea:



etorri eta gozatu!